



OÑATI
dabilen herria

www.oñati.eus



OÑATI
dabilen herria

Izan parte, hartu hitza.

Oñatiko herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko Udal Ordenantzaren gida.

Araudi honek ikuspegi eraldatzaile eta emantzipatzailetik eta gizarte justizian oinarritutako partaidetzaren ideiatik abiatzen den eredu bati erantzun nahi dio.

Zentzu horretan, balio eta printzipio hauek barnebiltzen ditu: informazio publikoa eskuratzea, gardentasuna, horizontaltasuna, partaidetza, konfiantza, elkarrekikotasuna, interakzioa, lankidetzaren berdintasuna, inklusioa eta ahalduntzea, betiere generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik begiratuta.

Gidaren inguruko kontsultak badituzu, edo partaidetza arloarekin harremanetan jarri nahi baduzu, idatzi hona:

partaidetza@onati.eus

Esku artean daukazuna GIDA bat da, **Oñatiko Udalaren herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera** arautzen dituen ordenantzaren puntu nagusiak aurkezteko tresna praktikoa bat.

Bertan aurkituko dituzu:

Udal politiketan parte hartzeko argibideak, herritarren elkarte eta kolektiboen sarea indartzeko bideak eta Udalarekin harremanetan jartzeko aukerak.

[Udal ordenantza deskargagarri hemen.](#)

Nondik, nola eta norekin eraikiko ditugu politika publiko eta komunitarioak?

Eraldaketarako bidea zurekin batera egin nahi dugu.

Ezagun da azken hamarkadetan gizartea erabat aldatu dela. Aurrez aurre bizi ditugun krisiak garai aldaketa baten erakusle dira. Aldaketa prozesu horien nahigabeko efektuak arintzeko eta erronka zahar eta berriei aurre egiteko politika publikoak ere berriz definitu behar ditugu. Horrek, ezinbestean, ikuspegiak aldatzea ez ezik, egiteko moduak eta harremanetan egoteko moduak aldatzea ere eskatzen digu Udaloari eta erakunde publikoari. Eta politika publikoek gaitasun eraldatzailea izan dezaten partaidetzan oinarritutako begirada komunitario eta feministak aintzat hartu behar ditugu. Pertsonak eta lurraldea erdigunean jarrita betiere, eta pertsonekin batera. Zurekin batera.

Horrez gain, gobernu modu berriek erakundeak herritarrei irekitzea eskatzen dute: informazio publikoa eskuratzeko aukera bermatzea, publizitate aktiboa egitea, eta kudeaketa publikotik eta gobernu gisa hartutako konpromisoetatik eratorritako erantzukizunen kontuak ematea.

Horregatik, herritarren partaidetzarako politikak eta ikuspegi komunitarioa duten politikak erdigunean jartzeko apustuari eusten dio Oñatiko Udalak, izan ere biak ala biak ekiteko palanka gisa ulertzen baititu, eta eraldaketa, hezkuntza, sormen eta emantzipazio asmoa eta ikuspegia dituzten gainerako politika publikoekin eta sareekin batera, desberdinkeriak gainditzea baitu xede.

Azken urteetan, gai horietan eskumenak eta erantzukizunak dituen saila sortu dugu, askotariko baliabideak bideratu ditugu, beste erakunde eta eragile batzuekin saretu gara eta hainbat prozesu eta egitasmo garatu eta akonpainatu ditugu. Azken urratsa praktikan eta ezagutzan oinarritutako toki mailako araudia sortzea izan da.

Herritarren partaidetzarako politiketan sakontzeak hiru zutabe nagusi ditu:

- Herritarren parte-hartzea politika publikoetan.
- Logika komunitarioetatik gizarte ehuna eta partaidetza sendotzea eta artikulatzea.
- Erakundea irekitzea.

Eta horretarako, ezinbesteko balioetat hartzen ditugu:

- informazio publikoa eskuratzeko.
- gardentasuna.
- horizontaltasuna.
- partaidetza.
- konfiantza.
- elkarrekikotasuna.
- interakzioa.
- lankidetzak.
- berdintasuna.
- inklusioa.
- ahalduntzea (*genero eta intersektionalitate ikuspegi batetik*).

Araudi horrek herritarren partaidetza instituzionala soilik arautzen du; eta, halaber, erakundeetatik kanpo, partaidetza herri edo gizarte ekimenei bidez gauzatzeko tresnak eskaintzen ditu.

Zentzu horretan, araudi honek, legearen mugen barruan, elkarrizketa eta agenda publikoan baztertuta eta gutxiegi ordezkatuta egon diren eta ahots-legitimitate oso mugatua izan duten biztanleria sektoreak eta kolektiboak barneratzeko aukerak jasotzen ditu, ikuspegi feminista eta intersektional batetik. Bereziki erreparatzen die emakumei, haurrei eta gazteei eta migratzaileei, azken horien egoera administratiboak eta egoera pertsonalak, emakumeen kasuan bereziki, erabat baldintzatzen baitute haien partaidetza.

Eskubideak aitortzetik eta ahalbidetzetik parte-hartzea sustatzera eta erraztera.

Bizitza hobeko bat izan eta gizarte zibil indartsu eta kohesionatuago bat eraikitze bidean, Oñatiko Udalak parte hartzeko eta parte izateko eskubidea aitortzen du eta beraz baliatzeko bermeak eta tresnak eskaintzen ditu, ez baitu parte-hartzearen kultura edonolako sustapen hutsera murriztu nahi. Gobernu ekintza argi, irmo eta proaktiboa ardatz hartuta, erakunde publiko gisa duen arduratik eta erantzukizunetik bultzatu eta indartu nahi ditu herritarren partaidetza eta partaidetzaren ikuspegi sozio-komunitarioa.

Partaidetza sozio-komunitarioa eta herritarren partaidetza sustatzeko asmoz, Oñatiko Udalean bi alderdiri ematen diegu arreta:

1. Herritarrek arazo publikoetan parte hartu eta eragin dezaten tresna, gune eta prozesuak ahalbidetzea.
2. Gizarte ehunean eta komunitatean, antolaketa eta ekintza bultzatu edo errazteko baldintza eta aukerak eskaintzea.

Bide horretan, Udal honek herriko pertsonen, elkarten eta kolektiboen jakintzek eta jarduerak herri honen historiari, herrigintzari eta partaidetza kulturari egin dioten ekarpena aitortu eta eskertzen du; eta bereziki nabarmentzen ditu sozialki aintzat hartuak izan ez diren gune eta kolektiboen ekarpenak, ezin konta ahala aukera eskaintzen baitizkigute harremanak eta egunerokotasuna ardatz herria egiteko. Lehentasunezko lekua eman nahi diegu ekimen eta lankidetzaren formula publiko-sozialei. Eta hori guztia, betiere, herri eragileen ekimenerako eta antolakuntzarako gaitasuna higitu, mugatu edo baldintzatu gabe.

Herritarrek arazo publikoetan parte hartzeko duten eskubidearen aurrean, partaidetzak eragina izan behar du politika publikoen diseinuan eta ezarpenean eta udal zerbitzuen funtzionamenduan.

Zentzu horretan, erakundeoi dagokigu partaidetza benetakoa eta eraginkorra izan dadin bermeak ezartzea eta baldintzak sortzea; baita bazterketa moduak gainditzeko eta parte hartzeko aukerak areagotzeko neurriak hartzea ere. Horretarako, beharrezko jotzen dugu historikoki baztertuak izan diren sektoreak eta kolektiboak ikusaraztea eta hainbat arrazoiengatik zalantzan jarri edo bazterrean geratu diren ahotsen eta bizipenen legitimitatea lortzea.

Desorekak murrizteko, Udalo erakunde gisa ditugun mugak eta ahuleziak zein egungo gizarte arau eta egiturek sortzen dituzten oztopo eta zailtasunak identifikatu, izendatu eta gainditzeko behar adina neurri hartzea dagokigu. Ahalegin horretan, arreta berezia eskainiko diegu sexu-generoa, klasea, adina, jatorria edota beste edozein baldintza sozioekonomikogatik diskriminazioei.

Zein helburu ditu araudi berri honek?



Kalitate demokratikoa areagotzea.



Partaidetzaren kultura sustatzea eta sakontzea udalerrian.




Lankidetza publiko-sozialerako baldintzak eta bitartekoak arautzea, komunitatearen partaidetza sustatzeko balio duten eta erabilera soziala ematen duten logiketarik abiatuta.



Herritarren –banaka eta taldeka– parte hartzeko eskubideak, baldintzak eta kanalak arautzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta errazteko, erabaki politikoak hartzeko prozesuetan eta zerbitzuetan, eta udal intereseko gaien kudeaketan.



Administrazioaren eta herritarren arteko harreman esparruak arautzea, herritarren partaidetzaren, lankidetza publiko-sozialaren eta irekiera instituzionalaren arloetan.



Gizartearen partaidetza indartzea, elkartegintza, boluntarioritza eta antolatutako gizarte zibila bultzatu eta egituratuta.



Gardentasun eskubideak eta prozedurak zehaztea, baita herritarrentzako komunikazio eta informazio bideak ere.

Aurkibidea

Nola hartu parte?

Norbanako nahiz talde gisa udal eskumeneko gaietan parte hartu ahal izateko argibideak.

12 - 41

Elkarteak saretu eta lankidetza sustatu.

Herritarren elkarte eta kolektiboen sarea indartzeko eta lankidetza lantzeko bideetan sakontzeko baliabideak.

42 - 49

Udalaren ateak, zabalik.

Harremanetan jartzeko eta informazioa jasotzeko aukerak.

50 - 57

Aurkibidea



Nola hartu parte 12

Eskubideak	14
• Eskatzeko eskubidea	15
• Entzuna izateko eskubidea	16
• Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea	17
• Osoko Bilkuretan hitza eskatzeko eskubidea	18
• Batzorde informatiboetan hitza hartzeko eskubidea	19
• Biltzeko eskubidea	20
• Aurretiazko kontsulta publikorako eskubidea	21
• Herritarren ekimenerako eskubidea	22
• Herri kontsultarako eskubidea	26
Herritarren partaidetzarako espazioak	32
- Guneak	34
- Organoak	35
Partaidetza prozesuak	36
- Partaidetzako aurrekontuak	40

Elkarteak saretu eta lankidetza sustatu 42

Elkarteen sarea indartuta	44
• Elkarteak eta kolektiboak	4
• Elkarte eta kolektiboen mapa	45
• Elkartegintza indartzeko zein baliabide dituzu eskura?	45
• Gizarte zibila indartzeko, zein baliabide ditugu eskura?	46
Lankidetza publiko-soziala sustatuta	47
• Zein arlotan landu dezakegu lankidetza publiko-soziala?	48
• Lankidetzarako bideak	49

Udalaren atekak, zabalik 50

Gardentasuna	52
Harremanetan jartzeko bideak	54
Udal komunikabideak	56

Nola hartu parte?

Herritar zaren aldetik, parte hartzeko eskubidea eta hainbat aukera dituzu.

Udalak eraginkortasunez sustatuko du parte hartzeko eskubideen erabilera.



Baldintzak sortzea

Partaidetza ahalik eta handiena eta zabalena lortzeko kanal eta tresna nahikoak, irekiak, malguak eta egokiak sustatuta eta bitarteko bereziak ezarrita.



Inklusioa arlo guztietan

Genero eta interseksionalitate ikuspegitik, parte-hartzea zailtzen duten oztopoak minimizatu edo ezabatuta, eta sektore eta kolektibo jakin batzuen zailtasunak aintzat hartuta.



Zaugarritasuna aintzat hartuta


Udalak zaugarritasun egoeran edo arriskuan dauden edo egon daitezkeen pertsonen, sektoreen eta kolektiboen partaidetza sustatuko du.




Eskubideak


 Eskatzeko eskubidea.


 Biltzeko eskubidea.


 Entzuna izateko eskubidea.

 Aurretiazko kontsulta publikorako eskubidea.

 Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea.

 Herritarren ekimenerako eskubidea.

 Osoko Bilkuretan hitz egiteko eskubidea.

 Herri kontsultarako eskubidea.

 Batzorde informatiboetan hitz egiteko eskubidea.

Eskubideen inguruko zalantzak argitzeko, Herritarren Arreta Zerbitzura (HAZ) zuzendu zaitezke, hiru bidetatik:

 **Telefonoz**
943 78 04 11
(010 Oñatitik deituz gero)

 **Aurrez aurre**
HAZ
Foruen Enparantza, 1
Astehenetik ostiralera
07:30etik 15:30era.

 **E-posta**
haz@onati.eus



Eskatzeko eskubidea

Oñatiko Udalaren eskumeneko edozein gairi buruz eskaerak egin edo argibideak eskatu ahal izango dizkiozu Udal Gobernuari.

* Horrelako eskaeren edukia askotarikoa izan badaiteke ere, Espainiako Konstituzioaren 29. artikulura mugatu behar da beti.


 **Nork eska lezake?**
Edozein pertsonak, bakarka zein taldean

Aurkeztu beharrekoak:

- Izen-abizenak.
- Jakinarazpenerako helbidea eta modua.
- NANA edo pasaporteak.
- Eskaeraren helburua.

***Taldekako eskaeretan, horiez gain:**

- Eskatzaile guztien sinadurak.
- Izen-abizenak.
- NANA edo pasaporteak.

 **Zein bidetatik?**
Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.

Udalaren betebeharra:

Udalak eskabidea jaso izanaren agiria egingo du.

Nortasuna egiaztatuta ez badago, 15 eguneko epea emango du zuzentzeko.

Eskaeraren onargarritasuna:

BAIEZKOA denean

Udalak gehienez 3 hilabeteko epean erantzun beharko du, eta hartutako edo aurreikusitako neurriak adierazi.

EZEZKOA denean

Udalak 45 eguneko epean ebazpen arrazoitua emango du, eskaera ez dela onartu adierazita.

- Eskaeraren gaia Oñatiko Udalaren eskumenekoa ez denean.
- Eskaerak berriazko administrazio tramitea duenean.





Entzuna izateko eskubidea

Legezko interesa baduzu edo udal prozedura baten tramitazioak edo udal ekintza batek nolabait eraginpean hartuko bazaitu, entzuna izateko eskubidea duzu entzunaldi publiko bidez.

** Alkatearen ekimenez edo Udalbatzako kideen gehiengo osoak hala eskatuta ere deitu daitezke entzunaldiak (topaketa edo saio espezifikokoak).*



Nork eska lezake?

Herri ekimenaren bidez, herritarren elkarteek eta kolektiboek hala eskatuta, baita herritar partikularrek eskatuta ere, baldin eta 16 urtetik gorako herritarren % 2ren sinadurak aurkezten badira.

Ezagutu herri ekimen bidez entzunaldi publiko bat abian jartzeko prozedura:
Herri Ekimenerako eskubidea
[Ikus 22. orrialdea](#)

Aurkeztu beharrekoak:

- Arrazoiak biltzen dituen idatzi bat.
- Aztertu nahi den gaiari buruzko txostena.
- Lortutako sinadurak, sinatzaileen nortasuna adierazita.

Eskaera orokorra:

<https://www.oñati.eus/eu/tramiteak>



Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.

** Hitz txanda plataforma digitalen bidez egingo balitz, ez da aurrez aurreko formatuaren denboretara egokituko.*



Funtzionamendua:

1. Eskatzailearen azalpena, gehienez 30 minutu.
2. Udal arduradun politikoen iritzia, gehienez 30 minutu.
3. Hitz egiteko txanda, bertaratuek beren iritzia eman dezaten, gehienez 30 minutu, hitza hartu nahi dutenen artean banatuta.
4. Udal arduradunen erantzuteko txanda, ordezkaritza txikienetik handienara; gehienez 10 minutu.
5. Ondorioak, halakorik egonez gero.

Udalaren betebeharra:

Alkateak Entzunaldi Publikorako deia egingo du entzunaldia eskatzen denetik hurrengo 30 egunen barruan.

Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 eguneko tartea utziko da.



Kexak, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko eskubidea

Desadostasuna edo asegabetasuna adierazi, erreklamazio bidez kalte-ordainak jasotzea aldarrikatu edota arloren bat hobetzeko proposamenak egiteko eskubidea duzu.



Nork aurkez lezake?

Edozein pertsonak, bakarka zein taldean.



Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.

Udalaren betebeharra:

Erantzun idatzi bat bidaltzea, arrazoiak azalduta, gehienez 3 hilabeteko epean.



Osoko Bilkuretan hitza eskatzeko eskubidea

Nork eska lezake?

Edozein pertsonak, bakarka zein taldean.

Aurkeztu beharrekoak:

Idatziz eta gutxienez 48 ordu lehenago eskatu beharko duzu (8 ordu lehenagora arte egiten bada, galdera-eskaeren txandaren ondoren eztabaidatuko da).

Adierazi beharrekoa:

- Izen-abizenak.
- NANA edo pasaporteak.
- Telefonoa edo helbide elektronikoa (edo jakinarazpenerako helbidea).

Funtzionamendua:

1. Eskatzaileak 10 minutuz hitz egingo du, gehienez.
2. Bilkurako lehendakariaren erantzuna.
3. Eskatzaileak erantzuteko aukera.
4. Lehendakariaren azken erantzuna.

**Denbora gehiago behar baduzu, eskaerarekin batera adierazi.*

Udalaren betebeharra:

Udaleko idazkariak eskaera gai-zerrendako puntu gisa jasoko du, Osoko Bilkura hasi baino 48 ordu aurretik horren berri izan badu. Bestela, gaia galderen eta eskaeren txanda amaitzean eztabaidatuko da.

Osoko Bilkurak publikoak dira.

Hitza eska dezakezu gai-zerrendako gaiei edo zure intereseko gaiei buruz.

Edonola ere, publikoan dagoen edonork hitza hartu ahal izango du galderen edo eskaeren txandan.

** Ezohiko Osoko Bilkuretan ezin izango duzu hitza eskatu.*

Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.



Batzorde informatiboetan hitza hartzeko eskubidea

Nork eska lezake?

Edozein pertsonak edo erakundek, erregulartasunez edo aldizka parte hartzeko.

Aurkeztu beharrekoak:

- Idatzizko eskaera arrazoitua. Eskaera gutxienez 8 ordu lehenago egin beharko da.

Erregulartasunez parte hartzeko eskaeretan erakunde direnek, horiez gain:

- Titularren izen-abizenak.
- Ordezkoaren izen-abizenak.

Udaleko informazio batzordeak ez dira publikoak. Hala ere, hitza eska dezakezu gai zehatz baten inguruan iritzia emateko edo eskatutako txostenak jasotzeko.

** Premiazko tramitearen bidez deitutako Batzordeetan herritarrek ezin izango dute parte hartu.*

Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.



Funtzionamendua:

1. Eskatzaileak 10 minutuz hitz egingo du, gehienez.
2. Batzordeburuaren erantzuna.
3. Eskatzailearen erantzuna.
4. Batzordeburuaren azken erantzuna.

**Denbora gehiago behar baduzu, eskaerarekin batera adierazi.*

** Ez duzu bozkatzeko eskubiderik izango.*

Udalaren betebeharra:

- Batzordeburuak baimena uka dezake, arrazoiak adierazita.
- Batzordeburuak ebazpen bat emango du bileretara joateko baimena emateko.
- Gai-zerrendak parte-hartzaileei bidaliko zaizkie.



Biltzeko eskubidea

Denok dugu biltzeko eskubideaz baliatu ahal izateko udal lokalak, ekipamenduak eta gune publikoak erabiltzeko aukera, betiere eskuragarritasunaren arabera.

** Igarobide publikoetan bilerak eta manifestazioak egiten direnean, eskubide hori arautzen duen Estatuko eta Autonomia Erkidegoko indarreko araudiak hartuko dira kontuan.*



Nork eska lezake?

Edozein pertsonak, bakarka zein taldean.

Zein baldintza hartuko dira kontuan?

- Gunearen ezaugarriak.
- Eskatzailearen izaera.
- Unean uneko eskaera eta erabilera baldintzak bete beharko dira eta udal instalazioen erabilpenaren prezio publikoak jasotzen diren ordenantza kontuan hartuko da.



Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.

Udalaren betebeharra:

Udalak, ahal duen neurrian, ekipamendu egokiak eta irisgarriak izango ditu bilerak egiteko. Haiek erabiltzeko baldintzak argi emango dizkizu.



Aurretiazko kontsulta publikorako eskubidea

Udal ordenantza edo araudi bat prestatu aurretik, haren eraginpean egon bazaitezke edota interesatuta bazaude, gai jakin bat arautzeko asmoa dagoela ezagutu, helburuei, konpondu nahi diren arazoei, arautzeko behar eta aukerei zein arautzeko irtenbide alternatiboetarako buruzko azalpenak jaso eta iritzia emateko eskubidea duzu.

** Tramite horri ezetz esateko aukera izango du Udalak kasu hauetan:*

- Aurrekontu eta antolakuntza arauak direnean.
- Interes publikoko arazoi larriak daudenean, egoera hori jasota utzita udaleko Osoko Bilkurari aurkezten zaizkion legezketasun txostenak.



Nork kontsulta lezake?

Edozein pertsonak, bakarka zein taldean.

<https://www.oñati.eus/eu/tramiteak/erregelamenduen-eta-ordenantzen-proposamenak-landu-aurreko-kontsulta-publikoa>

Iritzia emateko, aurre kontsulta argitaratzen denetik 20 laneguneko epea izango duzu.

Adierazi beharrekoa:

- Datu pertsonalak.
- Berariaz, alderdi hauen gaineko iritzia:
 1. Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
 2. Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
 3. Arauaren helburuak.
 4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik ez-erregulatzailerik.



Zein bidetatik?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.

Udalaren betebeharra:

Aldez aurreko kontsulta publikoa egin dadin erabakitzea, eta kontsultaren edukia zehaztea eta prestatzea.

Udaleko web atariaz baliatuta, kontsulta gaitzea/irekitzea/bideratzea (20 egun balioduneko epean).

Jasotako ekarpenak aztertzea.


Kontsultaren emaitzei buruzko txostena egin eta argitaratzea.



Herritarren ekimenerako eskubidea

Aurea hartu eta sinadura bilketaren bidez Udalari eska diezaiokazu interes orokorreko eta bere eskumeneko jarduera bat egin dezan.

Eskaera motak eta dagozkion sinadura kopurua:



Zer ezin duzu eskatu?

- Espainiako Konstituzioaren I. tituluko II. kapituluan jasotako oinarritzko eskubideak eta betebeharrak mugatzea edo murriztea.
- Udal Araudi Organikoaren berezko gaien aldaketak.
- Dagoeneko onartuta dauden aurrekontuetako aldaketak.
- Udal zergen eta prezio publikoen aldaketak.



Prozedura:

1 Batzorde Sustatzailea

* Kontsultatu baldintza zehatzak udal ordenantzan.

Sustatzaileen artean herritarren ekimenaren **Batzorde Sustatzailea** osatuko da:

- Gutxienez 3 pertsona (Oñatin erroldatuak eta >18 urte, ezin dute hautetsiak izan).
- Sustatzaile izan daitezke jarduera eremua Oñatin duten herritarren erakundeak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, enpresa erakundeak, sindikatuak eta elkargo profesionalak.
- Gutxienez sinadurak biltzeko konpromisoa hartuko du, eskaera motaren arabera.
- Herri kontsulten kasuan, ezin dira kide izan indarrean den legediak euskal erakundeetako hautetsientzat eta goi karguentzat ezartzen dituen hautaezintasun edo bateraezintasun arazoietako bat duten pertsonak, ezta Eusko Jaurlaritzako edo Estatuko kideak ere. [Ikus 26. orrialdea](#)

2 Eskaera eta sinadurak biltzeko orria aurkeztea



Zein bidetatik aurkeztu?

Idatziz aurkeztu behar da, aurrez aurre edo telematikoki, indarrean den araudiaren edota udal prozeduraren arabera.



Aurrez aurre:

Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).



Telematikoki, egoitza elektronikoren bidez:

onati.eus



Eskaerarekin batera aurkeztu behar dira sinadurak aurrez aurre biltzeko **orriaren** edo inprimaki telematikoaren **proposamena**.

Orri edo inprimakiaren alderdiak:

Ekimena onartzearen aldeko arrazoiak.

Proposatutako ekimena deskribatzen duen testu osoa (sinadurak testutik bereizita egon ez daitezten).

Behar beste tarte datuak idazteko: Izen-abizenak, NAN/Pasaporte/AIT, sinadura, jaioteguna, posta kodea eta sinadura.

Informazio klausula: datu pertsonalak biltzearen xedea eta datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen araudia azaltzen duena.



Agiriak:

Batzorde Sustatzaileko kideen zerrenda, (izen-abizenak eta NAN fotokopia sinatuta), bozeramailea eta haren ordezkoa nor den adierazita.

Ekimena bestelako erakundeetatik badator: akordioa onartu zeneko bileraren aktaren ziurtagiria, erakundeko idazkariak eta presidenteak sinatuta.

Fede-emaile izango diren pertsonen zerrenda (halakorik izanez gero).

Gune publikoa erabiltzeko eskaera (beharrezkoa bada).

Eskaerak aurkezteko baldintza bereziak:

Xedapen orokor baten kasurako:

Ekimenak aldeko edo aurkako iritzia emateko beharrezkoak diren aurrekariak jaso beharko ditu, eta sinadurak biltzeko orrien edo plataforma digitaleko inprimakien proposamenak honako hauek jasoko ditu:

- Xedapenaren testu artikulatua edo xedea zehaztasunez zedarritzen duten oinarritzko ildoak, eta artikulatua egiteko printzipioak eta irizpideak.
- Sustatzaileek egoki iritzitako arrazoiak azaltzea, eta xedapen orokorra tramitatzea eta onartzea.

Herri kontsultetarako:

- Egin nahi duzuen galderaren testu zehatza.
- Lurralde eremua.
- Sustatzaileen identifikazioa (izen-abizenak, NAN fotokopia sinatua).
- Kontsultara deitutako pertsonak.
- Ekimena gauzatzeko arrazoiak azaltzen dituen memoria.

Ikus 22. orrialdea

3 Udalaren aldetik eskaera egiaztatzea eta izapidetzeko onartzea

- Sinadurak bildu aurretik, Udalak eskaeraren baldintzak betetzen direla ziurtatuko du.
- Herri kontsulta sustatzeko ekimena bada, Udalak txosten ekonomiko bat eska dezake, kontsultaren emaitzak udal jardueraren aurrekontuan eta plangintzan izan dezakeen eragina neurtzeko.
- 500.000 eurotik gorako aurrekontua badu, Udalak tramitatzeari uko egin diezaioke.
- Aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada, Udalak Batzorde Sustatzaileari jakinaraziko dio, 10 egun balioduneko epean agiriak aurkezteko. Aurkeztu ezean, eskaera bertan behera gelditu dela ulertuko da.
- Baldintzak betetzen badira:
 - Aurrez aurreko kasuan:** sinaduren orriak zenbakitu eta zigilatu beharko dira.
 - Telematikoki bada:** formularioa eta bilketa sistema aldeztatu beharko dira.
- Eskaera aurkezten denetik gehienez hilabete bateko epean* jakinaraziko da eskaera onartu den BAI ala EZ, betiere, arrazoituta (eskaera onartzen bada, web atarian argitaratuko da).

** Epe hori etengo da Batzorde Sustatzaileari argibideak ematea eskatzen bazaio.*

4 Sinadura presentzialak autentifikatzeko fede-emaile bereziak izendatzea

- Fede-emaile bereziak izan daitezke 18 urtetik gorako EAEko edozein udalerritan erroldatutako pertsonak.
- Batzorde Sustatzaileak fede-emaile zerrenda aurkeztuko dio Udalari, sinadura biltzeko epea amaitu baino 15 egun lehenago.
- Horretarako konpromisoa hartuko dute Udaleko Idazkaritzarekin, Batzorde Sustatzailearen aurrean egindako adierazpen pertsonal bat sinatuta.
- Gehienez 15 eguneko epean, Udalak Batzorde Sustatzaileari jakinarazi beharko dio fede-emaile berezi gisa emandako gaikuntzak edo ukatzeko arrazoiak.
- Faltsukeria kasuan, erantzukizun penalak ere izan ditzakete.

5 Sinadurak biltzea, autentifikatzea eta aurkeztea



- * Aurrez aurre bildutakoak sortan aurkeztu beharko dira.
- * Sinadurak egiaztatu egin behar dira.
- * NANaren fotokopia aurkeztu behar da.

*** Sinadurak jasotzeko epea:** 2 hilabete (udal zerbitzuek baliozkotutako agirien lehen multzoa Batzorde Sustatzaileari itzultzen zaion egunetik zenbatzen hasita).

Sinadurak baliozkoak direla egiaztatzeko moduak:

Udalak parte hartzeko gune digitalen bidez balidatutako erabiltzaile eta pasahitz sistema baten bidez izapidetutako sinadura digitalaz baliatuta.

Sinadura elektronikoaren bidez.

Ikuskatzeko sistema duten sinadurak biltzeko plataforma digitalak.

- Notaritza bidez.
- Udal idazkariaren bitartez.
- Batzorde sustatzaileak.
- Aurrez izendatutako fede-emaile bereziak.

Udalak sinadurak egiaztatzeko epea: gehienez hilabete.

Udalaren betebeharrak:

Eskaerak izapidetzeko onartu eta sinadurak baliodunak direla onartu ondoren.

ESKATUTAKO EKIMENA	UDALAREN BETEBEHARRA
Entzumaldi publiko bat eskatzea.	Udalak deialdia egin beharko du gehienez 30 eguneko epean.
Xedapen orokor bat onartzea.	Tramitazioa agindu hurrengo 3 hilabeteetan.
Herri kontsulta baterako deialdia egitea.	Udal kontseiluak proposamena onartu eta ekimena antolamendu juridikoarekin bat datorrela egiaztatu beharko du.
Partaidetza prozesu bat eskatzea.	Deialdia egin 3 hilabeteko epean gehienez.
Partaidetza organo bat sortzea.	Organo eskudunera bideratu, haren sorrera Udaleko Osoko Bilkurari proposatu diezaion. Horrek erabakiaren berri eman behar du jendaurrean eta, aurka badago, arrazoiak adierazi, gehienez 30 eguneko epean.

- Udaleko Osoko Bilkuraren onespina behar duten jarduerak bada: Batzorde Sustatzaileko kide bat Osoko Bilkurara joan daiteke proposamena azaltzera.
- Izaera orokorreko xedapen bat onartzea proposatzen bada, Batzorde Sustatzaileak proposamena atzera bota dezake behin betiko onartzeko bozketa egin aurretik, baldin eta uste badu tramitazioan arau proposamenaren hasierako edukia nabarmen aldatu dela.
- Udalak aholkularitza tekniko eskainiko die.



Udal kontsultarako eskubidea

Aurea hartu eta Udalari eska diezaiokezu garrantzi berezia duten eta interes orokorreko bere eskumeneko gaiei buruz herritarren iritzia galdetu dezala bozketa sistema bidez.

* Izaera kontsultiboa du eta ez du erreferendum baliorik.

? Zer dira?

Herritarrek parte hartzeko mekanismo bat dira, herritarrek iritzia eman dezaten garrantzi berezia duten eta interes orokorreko udal eskumeneko gaiei buruz, bozketa sistema unibertsal, zuzen, aske, berdin eta isilpeko baten bidez.

Bi kontsulta mota daude:

Herri kontsulta: udalerrri mailako izaera duten udal eskumeneko garrantzi bereziko gaiak direnean.

Sektoreko edo lurralde eremu mugatuetako kontsulta: herritar talde bati bakarrik bideratutakoak.

Ezaugarriak:

Lotesletasuna:

Emaitzak EZ dira lotesleak izango. Hala ere:

- Udal taldeek emaitzak onartuko dituzten ala ez adieraz dezakete.
- Erabakia hartu behar duen organoak (Tokiko Gobernu Batzarrak edo Osoko Bilkurak) emaitzak kontsultapean jarritako gaiari nola eragingo dion azaldu beharko du.

Mugak:

- Urtean kontsulta prozesu BAKARRA egin daiteke (prozesu bakoitzean gai bat baino gehiago kontsulta daitezke).
- Udala kontsulta ekimen guztiak prozesu bakarrean biltzen saiatuko da.
- Kontsulta bat sustatzeko tramiteak abiarazi ondoren, ezin izango da gai berari buruzko beste kontsultarik sustatu 4 urte igaro arte.

Noiz ezin da egin?

- Hauteskunde orokorren edo autonomikoen deialdiaren eta horiek egiteko epearen arteko epealdian.

Printzipioak:

- Gardentasuna.
- Publizitatea.
- Argitasuna.
- Informaziorako aukera.
- Erakunde neutraltasuna.
- Interes kolektiboaren nagusitasuna.
- Aniztasuna.
- Deliberazio publikoa.
- Berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Inklusioa.
- Irisgarritasun unibertsala.
- Eraginkortasuna.
- Datuen babesa.
- Kontu ematea.

Gaiak:

EZ dira kontsulta gai izango:

- Pertsonen duintasuna, giza eskubideak edo oinarrizko eskubideak zein askatasun publikoak urratzen edo zalantzan jartzen dituztenak.
- Toki Ogasunaren diru sarrera publikoei eta Udalaren finantza jasangarritasunari lotutakoak.

- Udal hauteskunde kasuan, epealdi hori luzatu egiten da hauteskunde aurreko 90 egun naturalera eta Udal Gobernu berriak kargua hartu ondoko 90 egunera.

Nork abia dezake?

1 Udalak sustatzen duenean:

- Aurkeztu beharrekoa:

- Egingo den galderaren edo galderen testu zehatza.
- Azalpen memoria bat.
- Kontsulta egiteko eskumen eremua.

- Udaleko hainbat arlotako txostenak izan behar ditu eskaerak.

EZEZKOA bada:

- Arrazoi zehatzak eman beharko dira.
- Aurkako errekurtsioa jar daiteke.

BAIEZKOA bada,

erabakiak jasoko ditu: kontsultaren baldintza zehatzak, kontsultaren galdera edo galderak, eta, hala badagokio, boto emaileen identitatea.

2 Herri ekimenez sustatzen denean:

Nork dei dezake?

- 18 urtetik gora udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dutenek.
- Oñatin erroldaturiko biztanleen % 10ek izenpetu beharko dute kontsulta eskaera.

Kontsulta eskatzeko baldintza guztiak ezagutzeko, ikus Herri Ekimenerako eskubidea atala 22. orrialdean

Ikus prozedura osoa 28-31 orrialdeetan

Nork du bozkatzeko eskubidea?

- 18 urtetik gorakoek (bozketa hastean urte horiek beteta izan behar dituzu).
- Kontsultaren deialdia egiten denean udalerrian erroldatuta egon behar duzu.
- Sektorekako edo lurralde eremu mugatuetako kontsultetan, Osoko Bilkurak erabaki dezake atzerrian bizi direnek edo/eta bozketa hastean gutxienez 16 urte dituzten adingabeek bozkatzea.

Nola galdetu eta nola erantzun?

- **Galdera:** zehatza, argia eta ulerterraza izan behar du.
- **Erantzunak:** BAI edo EZ (salbuespen moduan, erantzun alternatiboak planteatu ahal izango dira).

* Boto zuria kontsideratuko da galderari erantzuten ez zaionean edo laukitxorik markatzen ez denean.

* Botoa baliogabetuko da laukitxo bat baino gehiago markatzen badira edota boto paperean iruzkinak, urratuak edo zuzenketak egin badira.



Prozedura:

2 Herri ekimenez sustatzen denean:

Ikus prozedura osoa hurrengo orrialdeetan.




Prozedura:

Herri ekimenaren kontsulta eskaera onartzea

- Behin aurretiazko izapideak ziurtatuta, kontsulta ekimena Osoko Bilkurari helaraziko zaio gehienez 30 eguneko epean.
- Erabakia Osoko Bilkuran gehiengo osoz hartuko da. (BAI/EZ) * **Ezezkoa bada:** aurkako errekurtsua jar daiteke.
- Osoko Bilkuraren erabakia aldekoa bada, akordioan kontsultaren baldintzak, galdera(k) eta, hala badagokio, parte-hartzaileen identitatea zehaztuko dira.



Deialdia



Deialdian adieraziko dira:

- Kontsultaren izaera eta lurralde eremua.
- Kontsultaren galdera(k).
- Bozketa sistema.
- Informazio kanpaina (30-90 egun): epeak, ezaugarriak, informazio bideak...
- Bozketa aldia: deialdia Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 90 egunen eta urtearen arteko epe luzaezinean egingo da eta gehienez 15 eguneko izango da, segidan edo txandakatuta.
- Bozketa lekuak.
- Kontsulta mahaien izendapena.
- Prozesuaren berme eta kontrol sistema.
- Udal langile gaituak.



Informazio kanpaina eta deliberazio publikoa

Informazio kanpainak deliberazio publikorako epe bat aurreikusi beharko du.

Epea: 30-60 egun.

Epe horretan, Batzorde Sustatzaileak, talde politikoek, gizarte eragileek eta eragile profesionalek informazio jarduerak egin eta beren jarrera azaldu ahal izango dute.

Udalaren guneak eta baliabideak

- Zein gune publiko utziko dituen zehaztuko du Udalak.
- Webgunean atal bat jarriko da kontsultaren gaiari buruzko aukera guztien berri emanez.
- Komunikazio kanpaina bat onartuko du Udalak, neutraltasun irizpideekin.
- Azalpen-buletin bat prestatu eta etxez etxe banatuko du.
- Hainbat euskarri (bereziki ikus-entzunezkoak) erabiliko dira azalpen-buletinaren edukien ulermenaren errazteko.



Bozkatzeko moduak

* Udalak boto eskubidea dutenen zerrenda osatuko du. Kontsultatzeko eta erreklamazioak aurkezteko epe bat finkatuko da.

Aurrez aurreko bozketa:

Kontsulta mahaietan egingo da, boto paperen bitartez, gutun azal itxia hautestontzian sartuta.

• Irizpideak:

- Parte-hartzaileen identifikazioa.
- Zerrendan dagoela egiaztatuta.
- Botoaren isilpekotasuna.
- Gutun azalen osotasuna, zaintza sistema egokiaren bitartez, zenbatzeko unera arte.

Bozketa ez-presentziala:

Sinadura elektronikoko sistema aurreratu baten bidez bozkatuko da. Salbuespen kasuetan, posta ziurtatu bitartez ere bai.

• Bermeak:

- Segurtasuna identifikazioan.
- Pertsona bakoitzak behin bakarrik bozkatzea.
- Botoaren isilpekotasuna.
- Gardentasuna.

* Sistema misto edo konbinatu bat ezarri ahal izango da.



Aurrez aurreko bozketarako kontsulta mahaien osaketa

- 2-5 lagunek osatuko dute mahaiak, dagozkien ordezkoekin.
- Gutxienez 2 udal langileak izango dira: mahaiko lehendakaria eta idazkariak.
- Udalak hautatuko ditu mahaiak osatuko dituzten pertsonak udal langile boluntarioen artean zozketa eginez. Nahikoak ez badira, gainerako partaideak Oñatiko biztanleak izango dira (izendapenari uko egin ahal izango diote).
- Mahaiak osatzen ez badira, udal langileak nahitaez izendatu ahal izango ditu Alkateak.
- Talde politikoek eta kontsultan interesatuek proposatutako pertsonak mahaietan egon ahal izango dira, behatzaile gisa.
- Mahaietako kideei ordaindu egingo zaie.
- Herri kontsultetan, aurrez aurreko mahai bat bermatuko da gutxienez Oñatiko auzo bakoitzeko. Mahai bakoitzak ez ditu 800 biztanle baino gehiago izango izendatuta.



Kontsulta mahaien eginkizunak

- Parte-hartzaileei parte hartzeko eskubidea egoki baliatzen laguntzea.
- Parte hartuko duten pertsonak identifikatzea.
- Deitutako pertsonen zerrenda zaintzea, boto ematea baimentzea eta erregistroa eramatea.
- Erantzunen behin-behineko kontaketa egitea jendaurrean eta aktan jasotzea.
- Beharrezko materiala zaintzea.
- Udalak agindu ditzakeen beste batzuk.



Prozedura:



Berme sistema

Fidagarritasuna, gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna bermatzeko, Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak kontsultaren jarraipena egingo du.

Kontsultaren Jarraipen eta Kontrol Batzordea

- Kontsultaren argitasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna zaintzeaz arduratuko da.
- Autonomiaz eta independentziaz jardungo du.
- Kontsulta prozesu bakoitzerako bat eratuko da.
- Deialdiaren ebazpenean batzordearen osaera aurreikusi behar da.
- Batzordearen erabakiak errekurritu ahal izango dira, haren izendapena onartu zuen organoaren aurrean.
- **Eginkizunak:**
 - Kontsulta behar bezala garatzen dela zaintzea.
 - Udalaren jardueren jarraipena egitea.
 - Kontsulta prozesua hobetzeko iradokizunak egitea.
 - Emaitzen zenbaketa berrikustea eta aktak eta gorabeheren txostenak Alkateari bidaltzea.
 - Deialdiaren ebazpenean beste edozein eginkizun eslehi dakiok.
- Batzordearen agintaldia Udalak kontsultaren emaitzaren aurrean duen jarrera jendaurrean adierazten duenean bukatuko da.
- **Osaera:**
 - Gutxienez 5 eta gehienez 15 lagunek osatuko dute.
 - Genero parekidetasuna bermatuko da (% 40 gutxienez).
 - Udaleko kideen kopuruak ezin du batzordekideen erdia baino bat gehiago izan.
 - Deialdia egitean 30 eguneko gehieneko epea zabalduko da; gizarte erakunde interesdunek ordezkari bat izendatu beharko dute.
 - Kopurua gehieneko kide kopurua baino handiagoa bada, zozketa publiko bat egingo da.
 - Behin betiko osaera Alkatearen ebazpen bidez onartuko da.



Botoen zenbaketa

- Botoa emateko aldia amaituta, mahaiek botoak zenbatu eta emaitza zehaztuko dute.
- Emaitzak aktan jasoko dira eta akta Jarraipen eta Kontrol Batzordeari emango zaio.
- Zenbaketa leku publiko batean egingo da.
- Akta horretan, bozketa prozesuko edozein alderdiri buruzko alegazioak jaso ahal izango dira.




Emaitzak argitaratzea

Akta jasotzen den egunetik eta gehienez 7 eguneko epean, Alkateak emaitzak adieraziko ditu ebazpen bidez.

Emaitzen ebazpenaren aurka eta alegazio edo/eta gorabeheri buruzko erabakien aurka, errekurtsio administratibo eta jurisdikzional arruntak jar daitezke.

Emaitzaren aurrean, Udalaren jarrera

Bozketaren emaitzaren eta gorabeheren ebazpenak argitaratu eta gehienez 60 egun naturaleko epean, dagokion udal organoak publikoki eta arrazoituta adierazi beharko du kontsultaren emaitzak zein eragin izango duen.



Herritarren partaidetzarako guneak

Topaketarako eta elkarrizketarako espazio egonkorak eta iraunkorak dira herritarren partaidetzarako guneak, sektore edota lurralde ikuspegi batetik hainbat gai lantzeko.

Udalaren zein herritarren ekimenez susta daitezke.

Udala, herritarrak –norbanako gisa edo antolatuta– eta beste erakunde batzuk elkarren artean erlazionatzen eta lanean aritzen dira espazio hauetan.



Herritar ekimenez partaidetzarako espazio berri bat abiatu nahi baduzu, zoaz gida honen [22. orrialdera](#): “Herritarren ekimenerako eskubidea”.

Guneak espazio arautuak edo arautu gabeak izan daitezke, eta iraupen mugatua edo mugagabea eduki dezakete. Eta hainbat forma har ditzakete: kontseiluak, behatokiak, foroak, mahaiak...

Guneetan jarraipen eta analisi partekatu bat egin daiteke sektore edo lurralde arloko gai askori buruz, logika komunitarioaren jardueri buruz edo udalerrian egiten diren partaidetza esperientziei buruz.

Eginkizun horiek betetzeko, jarduketei edo aztertu beharreko gaiei buruzko informazio nahikoa partekatu behar da guneetan.

Osaketa:



udala



herritarrak:
norbanakoak
edo antolatuak.



beste eragile eta
erakunde batzuk

guneak

araututako organoak

Organoak antolakuntza egitura bat eta funtzionamendu formalizatu bat duten guneak dira. Udalaren menpekoak dira eta ordenantza bidez arautzen dira.



Organoen sortzea eta arautzea

- Udalaren zein herritarren ekimenez susta daitezke.
- Udaleko Osoko Bilkurak berretsiko ditu:
 - Sorrera eta funtzionamendu arauak.
 - Aldatu eta desegitea.
 - Kidetza.

Lurralde eremukoak (organoaren eginkizunak udalerrri osoari edo zati zehatz eta mugatu bati dagozkionean) edo sektorekakoak (organoaren eginkizunak biztanleria-sektore jakin bati, udal-jarduerako arlo jakin bati edo udal ekipamendu edo zerbitzu publikoren bati dagozkionean) izan daitezke.



Eginkizunak

1. Gomendioak eta proposamenak egitea.
2. Udalak proposaturiko asmoen edo proiektuen gaineko eragozpenak edo aldaketa proposamenak aurkeztea.
3. Jardueren inguruko txostenak egitea.
4. Laguntza ematea.
5. Partaidetza prozesuak sustatzea.



Funtzionamendua

1. Ahal denetan, akordioak elkarrizketan oinarritutako adostasunez hartuko dira. Ezinezkoa denean, bozketa egingo da.
2. Lantaldeak eta lanerako guneak sor daitezke.
3. Udalak laguntza administratibo-teknikoa eman beharko die funtzionamendu zuzena eta autonomia gorena bermatzeko. Organoek idazkaritza tekniko bat izango dute jardueraren akta jasotzeko, eta erreferentziako teknikariak izendatuko dira organo bakoitzerako.





Partaidetza prozesuak

Herritarren arteko edota herritar eta udal arduradunen arteko elkarrizketa sustatzeko eta ideien, ikuspegiaren eta jarreraren kontrastea ahalbidetzeko prozesuak dira, denbora tarte jakin batera mugatutakoak.

Udalaren zein herritarren ekimenez susta daitezke.



Herritar ekimenez partaidetzarako espazio berri bat abiatu nahi baduzu, zoaz gida honen [22. orrialdera](#): "Herritarren ekimenerako eskubidea".

Prozesu bat abiatu aurretik, haren definizio zehatza egingo da: motibatu duten arrazoiak, lortu nahi diren helburuak eta Udalak emaitzekiko duen konpromiso maila.



Zertarako?

- Egoera jakin baten diagnostikoa egiteko.
- Ideia sortzaileak edo berritzaileak bilatzeko.
- Egoera jakin batean esku hartzeko proposamen zehatzak egin edo baloratzeko.

Zer egingo du Udalak prozesuaren emaitzekin?

- Partaidetza prozesuaren emaitzak Udalaren erabakitzeko ahalmenetan eragiten ez duen arren (ez da lotestea), Udalak aurrez zehaztu beharko du prozesuaren emaitzak nola hartuko dituen kontuan bere azken erabakian.
- Prozesuaren emaitzetatik aldentzea erabakiz gero, Udalak azalpenak eman beharko ditu.

Talde sustatzailea:

Osaketa:


- Sustatzailea UDALA denean: udal arlo bati edo batzuei esleituko zaizkio/e eginkizunak.
- Sustatzailea HERRITARRAK direnean: ekimenaren Batzorde Sustatzaileak izendatutako pertsonak partaidetza prozesua sustatzen duen taldeko kideak izango dira.

Eginkizunak:

- Parte-hartzaileen profilak identifikatu eta proposatzea.
- Metodologia definitzen laguntzea.
- Jarraipen Batzordeko kide izatea, prozesuan sor daitezkeen kekek edo desadostasunak konpontzen laguntzeko.
- Prozesua ebaluatzeko adierazleak definitzen laguntzea.

Prozesuaren onarpena:

- Prozesua Alkateak edo hark eskuordetutako organoek onartuko dute, honako hauek adierazita:
 - Prozesuaren helburua: iritzipean jarriko den jarduera publikoa, esparru teknikoak, ekonomikoak, juridikoak eta politikoak.
 - Herritarren ekimenaren Batzorde Sustatzaileak edo Udalak planteatutako alternatibak, halakorik balego.
 - Partaidetza prozesuaren udal eremua.
 - Funtzionamenduaz arduratuko den administrazio organoa.



Printzipio gidariak:



Sortzeko eta deliberatzeko fasea:

- Prozesuko iritziak eta ondorio edo emaitzak jaso egin beharko dira.
- Aurrez aurreko saioak: irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatuko dira.
- Gune digital osagarriak: informazioaren gardentasuna, trazabilitatea eta dibulgazioa bermatuko dira.
- Askotariko formatuak erabiliko dira prozesua jendarteratzeko eta partaidetza sustatzeko.

Jarraipen Batzordea:

Jarraipen Batzordea eratuko da eta eginkizun hauek izango ditu:

- Tresnei eta metodologiei buruz informatzea eta aldaketak iradokitzea.
- Tresnen funtzionamendu eta eraginkortasunaren jarraipena egitea, hobekuntzak gomendatzea eta kalitate bermeak ziurtatzea.
- Prozesuaren emaitzen txostena ezagutzea.

Kideak:

- Profila eta kopurua kasu bakoitzean zehaztuko dira.
- Ahalik eta pluraltasun, aniztasun handiena.

Partaidetzako aurrekontuak

Partaidetza prozesu bat da, non udal aurrekontuaren zati bat herritarren proposamen eta erabakien menpe uzten den.



Udalak herriko partaidetza beharrei eta dinamikari erantzun dion eredu sortuko du.



Eredu horretan metodologia bat, faseak, erabakiak, exekuzioa eta ebaluazioa zehaztu beharko dira.



Diru-kopuru jakin batzuen erabileraren gaineko proposamen, gogoeta eta deliberazioetan elkarriketa izango da ardatz.




Datuak sexuaren/ generoaren eta beste ezaugarri interesgarri batzuen arabera jasoko dira.



Itzulketa

Prozesuaren eta emaitzaren itzulketa egin beharko da.



Elkarteak saretu eta lankidetzaz sustatu.

Herritarren elkarte
eta kolektiboen sarea
indartzeko eta lankidetzaz
moduetan sakontzeko
baliabideak.

Elkarrekin sare indartuta

Herritarren elkarte eta kolektiboak

Herritarren elkarte eta kolektiboak irabazi asmorik gabeko taldeak dira, **formalki eratuta edo ez**, Oñatiko udalerrian esku hartzen dutenak edo bertan errotuta daudenak.

Zer dira herritarren elkarteak?

Herritarren elkartetzat hartuko dira irabazi asmorik gabeko elkarteak, formalki eratuta eta dagokien eroldan inskribatuta daudenak eta elkartzeko eskubidea arautzen duen araubide orokorrarekin bat datozenak, baldin eta haien egoitza edo jarduera nagusia Oñatiko udal mugartean badago eta funtsezko helburutzat badute, bere estatutuaren aurreikusitakoaren arabera, herritarren interes orokorrak edo sektorialak ordezkatzeko eta sustatzea eta haien bizi kalitate hobetzea.

* Oñatiko Udalak, arautegi honen bitartez, elkarte zein kolektiboaren balio publikoa aitortu nahi izan du eta, horregatik, araudi honetan maila bereko aitortza egiten zaie, partaidetzarekiko eskubideetan parekatuz.

Oñatiko herritarren elkarte eta kolektiboaren sare udalerrian dugun gizarte kapitalaren elementu garrantzitsuenetako bat da, geure udalerriarekin dugun konpromisoaren adierazpen kolektiboa den heinean eta interes publikoko helburuak betetzen dituen heinean.

Udalak gizarte ehuna eta zuen elkarte proiektuak sustatu eta indartu nahi ditu, sareko lanaren bidez eta bakoitzaren autonomia errespetatuta. Arreta berezia eskainiko dizue berdintasunaren eta justizia sozialaren ikuspegitik lan egiten duzuenoi, komunitatea eta komunitario dena indartzeko xedea duzuenoi eta bazterkeria arriskuan dauden pertsona, sektore eta kolektiboaren partaidetza eta inklusiorako bide bat ematen duzuenoi.

Zer dira herritarren kolektiboak?

Herritarren kolektibotzat hartuko dira hiru pertsonak edo gehiagok osatutako irabazi asmorik gabeko taldeak, baldin eta, herritarren elkarteak izan gabe, Oñatiko udalerrian esku hartzen badute, udalerrian errotuta badaude eta haien helburuen artean badute herritarren interes orokorrak edo sektorialak sustatzea eta haien bizi kalitatea hobetzea.



Herritarren elkarte eta kolektiboaren mapa

Oñatiko elkarte eta kolektiboak ezagutu nahi dituzu?

Elkarte edo kolektibo bateko kide zara eta zure burua mapatu nahi duzu?

onatiekintzakomunitarioa.eus



Zein baliabide dituzu eskura?

1.

Herritarren elkarte eta kolektiboek jarduerak berme guztiarekin egin ditzazuen, hainbat baliabide ditu zuen eskura Oñatiko Udalak:

- Laguntzak.
- Dirulaguntzak.
- Hitzarmenak.
- Bestelako lankidetzaren moduak.

3.

Udalaren ardura izango da elkartegintza sustatzeko eta indartzeko neurriak jasoko dituen programa bat prestatzea.

Programan jasoko da:

Prestakuntza/Formakuntza

Elkarteak kudeatzeari, dinamizatzeari eta sustatzeari buruzkoa, elkartearen mugimenduari batera antolatuta, hainbat formatu eta modalitateetan. Gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak gainditzeko xedea duten prestakuntza ekintzei arreta berezia eskainiko zaie.

Aholkularitza

Aholkularitza zerbitzua: partaidetzaren eta kudeaketan.

Baliabideak

Elkarrekin sare baliabide bereziak.

2.

Bultzatuko diren elkarte proiektuak:

- Inklusiboak eta herritar guztiei irekiak.
- Interes orokorra sustatzeko, irisgarritasun unibertsala bermatzeko eta desberdintasunak murrizteko xedea dutenak.
- Jarduerak doan ematen dituztenak edota zentzuzko prezio politikak dituztenak.
- Gizartearen egituraketa eta herritarren elkarte eta kolektiboaren arteko lankidetzaren sustatzea dutenak.
- Lurralde orekan, berdintasunean eta justizia sozialean eragiten dutenak.
- Erabakiak hartzeko gune irekia dutenak.



Gizarte zibila indartzeko, zein baliabide ditugu eskura?

1 Informazioa eta prestakuntza

Herritartasun aktiboa sortzeko beharrezkoa den informazioa eta prestakuntza bultzatuko ditu Udalak, balio demokratikoak eta partaidetza gizarte balio gisa gara daitezen.

2 Boluntariotza

Partaidetza, inklusio eta eraldaketa bokazioa duen eta zentzu komunitarioa duen ekintza edo lan boluntarioa aitortu eta sustatuko du Udalak.

3 Baliabideak eta ekipamenduak

Boluntariotza eredu horren barruan diharduten taldeei baliabideak eta ekipamenduak eskainiko zaizkizue.

Lankidetzaren publiko-soziala sustatuta

Gizarte bidezkoago eta berdinezaleago bat lortzeko asmoz, elkarte eta kolektiboen eta Oñatiko Udalaren artean askotariko lankidetzak bultzatuko dituzkegu, onura orokor bat sortzeko duten bi aldeentzako intereseko jarduerak garatuta.

Printzipioak



Gardentasuna eta publikotasuna



Konfiantza



Ingurumen, ekonomia eta gizarte jasagarritasuna



Lehia eta objektibotasuna



Erantzunkidetasuna, elkarrekikotasuna eta osagarritasuna



Lankidetzaren



Iriskarritasun unibertsala eta arrazoizko doikuntzak



Ekitatea eta berdintasuna



Autonomia



Koherentzia

Zein arlotan landu dezakegu lankidetzaren publiko-soziala?

Partaidetza

Elkartegintza, boluntarioria eta partaidetza komunitarioa.

Elikadura, ekonomia eta kontsumo alternatiboa

Herritarren elkartasunerako jarduerak

Zaintza sareak eta denbora bankuak.

Osasun publikoa eta komunitarioa

Osasunaren baldintzatzaile sozialetan eragina eta osasunaren sustapena.

Kulturartekotasuna, belaunaldiartekotasuna, kapazismoak gaitzea eta sexualitatea.

Kirola

Tokiko garapen ekonomikoa, enplegarritasuna eta gizarteratzea eta laneratzea

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Ahalduntzea maila indibidualean, kolektiboan eta soziopolitikoan; pentsamendu eta ekintza feminista; indarkeria sexista prebenitzea eta arretea ematea; eta zaintzak demokratizatzea.

Gizarte arriskuko egoerak prebenitzea eta gizarte- eta laguntza-ongizatea sustatzea

Herri hezitzailea

Etengabeko ikaskuntza, hezkuntza eragileen arteko elkarnala eta hezkuntza komunitatea.

Hirigintza

Gune publikoak edo ondasun komunak kontserbatzea, birgaitzea edo berroneratzea (orube hutsak, lokalak, ekipamenduak, berdegune komunak).

Hiri ingurumena

Ingurumenaren babesa, ingurumen hezkuntza, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra, hondakinen minimizazioa, birziklapena, berrerabilpena, klima larrialdiaren eta haren ondorioen aurkako borroka.

Hizkuntza berdintasuna eta euskararen aldeko neurriak.

Kultura

Sorkuntza eta hiri kulturako proiektuen eta esperimenduen eta sormen artistikoko proiektuen garapena; jaialdiak, jaiak eta ekimenak; hurbiltasuneko kultura ereduak; eta kulturarako sarbidea.

Balio demokratikoak, giza eskubideak, justizia soziala eta berdintasuna; genero indarkeriaren eta LGTBQ+ fobiaren aurkako borroka.

Beste politika publiko batzuk

Lankidetzarako bideak

Udala-Elkarrekin-Kolektiboak

Hitzarmenak

Elkarrekin eta kolektiboekin lankidetzaren publiko-sozialaren arloan interes komuneko helburuak eta jarduerak garatzeko hitzarmenak sinatu ditzakegu.

Dirulaguntzak

Lehia bidezko dirulaguntzak, eta salbuespen gisa, izendunak eta zuzenak.

Zerga-onurak edo -pizgarriak

Zerga onurak ezarri, edo salbuespenak, murrizketak, hobariak edo kenkariak aplikatu ditzakegu.

Parte-hartze ekonomikoa

Hornidurak edota zerbitzuak eman edo obrak egin ditzakegu.


Ondasun higigarri edo higiezinak

Erabilera baimendu edo lagapena egin dezakegu.

Udalaren ateak, zabalik.

Harremanetan jartzeko
eta informazioa jasotzeko
aukerak.

Oñatiko Udalak bi norabidetan ditu ateak irekita. Gardentasuna sustatzen du, herritar bezala informazio publikoa eskuratzeko duzun eskubidea bermatuta eta publizitatea aktiboa eginda. Horrez gain, Udalarekin harremanetan jartzeko hainbat aukera eskaintzen ditu eta udal mailako komunikabideak sustatzen ditu.





Gardentasuna

Informazioa zure eskura

Gardentasuna toki erakundeen esku dagoen informazio publikoa herritarrei erraz ulertzeko moduan ematean datza.

Gardentasunaren bitartez, Udaleko jarduera publikoa ikusgai jarri nahi dugu, eta horretarako haren antolaketari, ekonomia-aurrekontu kudeaketari, araudiei eta jarduera datuei buruzko informazioa ematen dugu. Hartara, herritarrek jakin dezakezue Udala nola gobernatzen eta administratzen den, zer erabaki, nola eta zergatik hartzen diren, eta zertan erabiltzen diren baliabide publikoak; horrela, jarduera publikoa ebaluatzeko eta boterea arduraz baliatzen dela bermatzeko aukera duzu.

Horrez gain, informazioa eta gardentasuna funtsezko baldintzak dira herritarren partaidetzarako.

Gardentasuna bermatzeko, Udalak estrategia bat definitu eta batzorde tekniko bat eratuko du, gardentasun betebeharren jarraipen eta kontrolerako.

Gardentasun ataria:

<https://oñati.gipuzkoairekia.eus/eu/>

Publizitate aktiboa

Udalak, maiztasun jakin batez, herritarrentzat interesekoa den informazio garrantzitsuena zabaltzeko betebeharra du:

- Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.
- Arau eta lege informazioa.
- Udal politika publikoei eta zerbitzu zorroari buruzko informazioa.
- Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.
- Toki erakundeen zerbitzura dauden langileei buruzko informazioa.
- Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuari buruzko informazioa.
- Interes orokorreko informazioa.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Herritar bezala, informazio publikoa jasotzeko eskubidea duzu.

Udalak informazioa emateko betebeharra duen heinean, herritar moduan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea duzu. Horretarako, dagokion eskaera bideratu beharko duzu.

Udalak eskaera horien erregistroa egingo du, baita urteko txosten bat ere. Bertan, aurkeztutako eskaeren kopurua, eskaera horiei emandako erantzun zehatza (onarpenen, onarpen partzialen, ezeztapenen eta ez-onarpenen kopurua eta arrazoiak) eta eskatzaileen profila jasoko ditu.

Harremanetan jartzeko bideak

HAZ: Herritarren Arreta Zerbitzua

Udalak arreta integrala eskaintzeko erreferentziako bulegoa da HAZ

- Udalari eta udalerritari buruzko informazio eguneratua eskuratzeko.
- Burutu nahi dituzun proiektu eta jarduerari begirako orientazioa jaso eta tramitatzeko.
- Zerbitzuren bat eskuratzeko edo prestazio batez baliatzeko laguntza jasotzeko.



Aurrez aurre

Foruen Enparantza, 1
Astelehenetik ostiralera
07:30etik 15:30era.



Telefonoz

943 78 04 11
010 (Oñatitik deituz gero)



Online

www.oñati.eus

Interneteko ataria

Oñatiko Udalak informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera bultzatzeko konpromisoa hartua du, espediente elektronikoaren eta udal webgunearen bidez.

Egoitza elektronikoa

Egoitza elektronikoaren atarian, berriz, Udalak herritarrei zerbitzu elektronikoak emateko sortutako egoitza espezifiko guztietarako sarbidea dago.

Helburuak:

Udal administrazioarekiko kudeaketa-lanak ahalik eta gehien erraztea.

Erakundearen eta haren gobernu organoen jarduerari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.

Herritarren partaidetza bultzatzea, proiektu esanguratsuetan herritarren ekarpenak jasotzeko eta erabakiak hartzeko, erantzunkidetasuna errazte aldera.

Udal talde politikoen ekimen eta proposamenei buruzko informazioa eta xehetasunak ezagutzera ematea.

Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazio interaktiboa ahalbidetzea.

www.oñati.eus

* Arrakala digitala gainditzeko, teknologia eskuratzeko neurriak bultzatuko dira eta bitarteko alternatiboak jarriko dira.

Udal komunikabideak

Informazio eskubidea bermatzeko eta ahalik eta herritar gehienengana iristeko asmoz, Oñatiko Udalak udal komunikabideak sustatuko ditu.

Horien erabilera eta garapena ahalik eta gehien bultzatzeko, kanalak ezarriko dira, hala konbentzionalak nola informazioaren teknologia berrietan oinarriturikoak.



Oñatiarren berbia
Atari digitala

oñati.eus/eu/berbia



Oñati irratia

oñati.eus/eu/berbia/irratia



Kontzejupetik
aldizkaria

oñati.eus/eu/berbia/kontzejupetik-aldizkaria

www.oñati.eus